

Jabetza Intelektualari buruzko Legea
Ley de Propiedad Intelectual

JABETZA INTELEKTUALARI BURUZKO LEGEA

LEY DE PROPIEDAD INTELECTUAL

EUSKO JAURLARITZA

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRACIO SAILA

GOBIERNO VASCO



DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
 Unibertsitatea

JABETZA INTELEKTUALARI BURUZKO LEGEA

LEY DE PROPIEDAD INTELECTUAL

MIKEL KARRERA EGIALDE

UPV/EHUko Zuzenbide Zibileko irakaslea

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ

UPV/EHUko Zuzenbide Zibileko irakaslea

IRENE ALDASORO KATARAIN

PATXI PETRIRENA ALTZUGUREN

Itzultzailaileak

JUAN GARZIA GARMENDIA

UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

JOSE ANGEL TAMAYO ERRAZQUIN

ANA LETURIA NAVAROA

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Irakasleak

Argitalpenaren koordinatzaileak

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia eta Herri Administrazio Saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Justicia y Administración Pública

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatza/Impresión: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

ISBN: 978-84-9860-276-0
Lege-gordailua/Depósito legal: BI - 2525-09

AURKIBIDEA

ÍNDICE

Prólogo. Idoia Mendiola Cueva.....	12
Atarikoa. Mikel Karrera Egielde	17
Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual.....	19
Libro I. De los derechos de autor.....	20
Título I. Disposiciones generales.....	20
Título II. Sujeto, objeto y contenido.....	22
Capítulo I. Sujetos.....	22
Capítulo II. Objeto.....	24
Capítulo III. Contenido.....	28
<i>Sección 1.^a</i> Derecho moral	28
<i>Sección 2.^a</i> Derechos de explotación	32
<i>Sección 3.^a</i> Otros derechos	42
Título III. Duración, límites y salvaguardia de otras disposiciones legales	58
Capítulo I. Duración	58
Capítulo II. Límites	60
Capítulo III. Salvaguardia de aplicación de otras disposiciones legales	72
Título IV. Dominio público	72
Título V. Transmisión de los derechos	72
Capítulo I. Disposiciones generales	72
Capítulo II. Contrato de edición.....	82
Capítulo III. Contrato de representación teatral y ejecución musical	94
Título VI. Obras cinematográficas y demás obras audiovisuales	100
Título VII. Programas de ordenador	108

Hitzaurrea. Idoia Mendiak Cueva	13
Atarikoa. Mikel Karrera Egialde.....	17
Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina	19
I. liburua. Egile eskubideak	21
I. titulua. Xedapen orokorrak	21
II. titulua. Subjektua, objektua eta edukia	23
I. kapitulua. Subjektuak	23
II. kapitulua. Objektua.....	25
III. kapitulua. Edukia.....	29
1. atala. Eskubide morala.....	29
2. atala. Ustiapen-eskubideak.....	33
3. atala. Beste eskubide batzuk.....	43
III. titulua. Iraupena, mugak eta beste lege xedapen batzuen babesgarria	59
I. kapitulua. Iraupena	59
II. kapitulua. Mugak.....	61
III. kapitulua. Beste lege-xedapen batzuk aplikatzeko babesgarria...	73
IV. titulua. Jabari publikoa	73
V. titulua. Eskubideak eskualdatzea	73
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	73
II. kapitulua. Argitalpen-kontratua	83
III. kapitulua. Antzezkizunetarako eta musika-exekuzioetarako kontratua.....	95
VI. titulua. Obra zinematografikoak eta gainerako ikus-entzunezko obrak	101
VII. titulua. Ordenagailu programak.....	109

Libro II. De los otros derechos de propiedad intelectual y de la protección «sui generis» de las bases de datos.....	118
Título I. Derechos de los artistas intérpretes o ejecutantes	118
Título II. Derechos de los productores de fonogramas	126
Título III. Derechos de los productores de las grabaciones audiovisuales	132
Título IV. Derechos de las entidades de radiodifusión	136
Título V. Protección de las meras fotografías	138
Título VI. La protección de determinadas producciones editoriales	140
Título VII. Disposiciones comunes a los otros derechos de propiedad intelectual	140
Título VIII. Derecho «sui generis» sobre las bases de datos	142
Libro III. De la protección de los derechos reconocidos en esta Ley	148
Título I. Acciones y procedimientos	148
Título II. El registro de la propiedad intelectual	158
Título III. Símbolos o indicaciones de la reserva de derechos	158
Título IV. Las entidades de gestión de los derechos reconocidos en la Ley	160
Título V. Protección de las medidas tecnológicas y de la información para la gestión de derechos	172
Libro IV. Del ámbito de aplicación de la Ley.....	178
Disposiciones adicionales	186
Disposiciones transitorias	186
Disposición derogatoria	198
Disposición final	202
LÉXICO.....	209

II. liburua. Jabetza intelektualeko beste eskubideak eta datu-baseen «sui generis» babesa	119
I. titulua. Artista interpretatzaile zein exekutatzaileen eskubideak	119
II. titulua. Fonograma ekoizleen eskubideak.....	127
III. titulua. Ikus-entzunezko grabazioen ekoizleen eskubideak.....	133
IV. titulua. Irrati hedapenerako entitateen eskubideak	137
V. titulua. Argazki hutsen babesa	139
VI. titulua. Argitaragai jakin batzuen babesa	141
VII. titulua. Jabetza intelektualeko beste eskubideen xedapen erkideak..	141
VIII. titulua. Datu-baseen gaineko «sui generis» eskubidea.....	143
III. liburua. Lege honetan aitorturiko eskubideen babesa	149
I. titulua. Akzioak eta prozedurak	149
II. titulua. Jabetza Intelektualaren Erregistroa.....	159
III. titulua. Eskubide erreserbaren sinbolo edo adierazleak	159
IV. titulua. Legean aitorturiko eskubideak kudeatzeko entitateak	161
V. titulua. Eskubideak kudeatzeko neurri teknologikoak eta informazioa babestea	173
IV. liburua. Legearen aplikazio eremua	179
Xedapen gehigarriak.....	187
Xedapen iragankorrrak.....	187
Xedapen derogatzalea	199
Amaierako xedapena.....	203
LEXIKOA.....	205

Prólogo

Me es muy grato introducir este libro, nuevamente fruto de la colaboración del Gobierno Vasco con la Universidad del País Vasco, y que plasma por escrito la que es una intención fundamental de nuestro gobierno, cual es la normalización lingüística y la promoción del euskera en todos los ámbitos. Es prioritario para mí y mi departamento continuar una tarea que, iniciada por el anterior equipo de gobierno, debemos continuar y afianzar en la medida de lo posible. Fruto de esta colaboración es la elaboración de la colección de códigos de nuestro departamento en euskera. Para cualquier jurista el código es un elemento esencial en el trabajo diario, referente habitual y necesario en cualquier ámbito del Derecho. Este Código se enmarca dentro de esta finalidad instrumental imprescindible en el devenir diario profesional del jurista. En este sentido, se incorpora a la colección de textos legales una traducción de la Ley de Propiedad Intelectual.

La propiedad intelectual es un concepto amplio, que incluye varios tipos de derechos reconocidos legalmente y que surgen de algunas formas de creatividad intelectual, como son los derechos sobre bienes intangibles, sobre ideas, expresamente (derechos de autor) o incluidas en una implantación práctica (patentes).

Los derechos de propiedad intelectual ya podemos encontrarlos en el Artículo 27.2 de la Declaración Universal de Derechos Humanos, donde se establece el derecho a beneficiarse de la protección de los intereses resultantes de la autoría de toda producción científica, literaria o artística:

2. Toda persona tiene derecho a la protección de los intereses morales y materiales que le correspondan por razón de las producciones científicas, literarias o artísticas de que sea autora.

La importancia de la propiedad intelectual empezó por ser reconocida en el Convenio de París para la Protección de la Propiedad Industrial de 1883 y en el Convenio de Berna para la Protección de las Obras Literarias y Artísticas de 1886. La Organización Mundial de la Propiedad Intelectual (OMPI) administra ambos tratados. Es evidente, por lo tanto, que nos encontramos ante uno de los sectores del Derecho en el que el origen internacional es más marcado.

Hitzaurrea

Atsegin handia da niretzat liburu hau aurkeztea. Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren beste emaitza bat da, eta gure gobernuaren oinarrizko asmoetako bat islatzen du, idatziz: hizkuntzaren normalizazioa eta euskara arlo guztieta sustatzea. Lehentasunezko eginkizuna da niretzat eta nire sailarentzat aurreko gobernu-taldeak hasitako zeregin horri ahal den neurrian jarraipena ematea eta horretan sakontzea. Lankidetza horri esker, hain zuen ere, gure saileko kodeen euskarazko bilduma osatu dugu. Kodea eguneroko lanerako oinarri-oinarrizko elementua dute legelari guztiekin; ohiko eta premiazko erreferentea da Zuzenbidearen edozein esparrutan. Hala, Kode hau ezinbesteko tresna da legelariaren eguneroko jarduera profesionalean. Horri dagokionez, Jabetza Intelektualari buruzko Legearren itzulpena atxiki zaio legeen testu-bildumari.

Jabetza intelektuala kontzeptu zabala da; legeak aitortutako eta hainbat sorkuntza moldetatik eratorritako eskubide jakin batzuk biltzen ditu, hala nola ondasun ukiezinen gaineko eskubideak, ideien gaineko eskubideak, espresuki adieraziak (egile-eskubideak) nahiz ezarpen praktikoei atxikiak (patenteak).

Jabetza intelektualaren gaineko eskubideak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 27.2 artikuluan daude jasota; adierazpen horretan, ekoizpen zientifiko, literario edo artistiko ororen egiletzatik eratorritako interesen gaineko babesea jasotzeko eskubidea adierazten da:

2. Pertsona orok du ekoizpen zientifiko, literario edo artistikoen egile izateagatik dagozkion interes moral eta materialen gaineko babesea jasotzeko eskubidea.

Jabetza intelektualaren garrantzia 1883an aitortu zen, lehen aldiz, Parisen egindako Jabetza Industriala Babesteko Hitzarmenari esker; eta bide horretan urrats handia egin zen, halaber, 1886an, Bernan egindako Obra Literario eta Artistikoak Babesteko Hitzarmena onartu zenean. Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundeak (JIME) administratzen ditu bi hitzarmen horiek. Begi-bistakoa da, beraz, nazioarteko jatorria markatuen duen zuzenbide-sektoreetariko bat dela

El Tratado internacional de Berna es un tratado internacional de gran alcance destinado a facilitar que los nacionales de un país obtengan protección en otros países para sus creaciones intelectuales mediante derechos de propiedad intelectual, a saber:

«todas las producciones en el campo literario, científico y artístico, cualquiera que sea el modo o forma de expresión, tales como los libros, folletos y otros escritos; las conferencias, alocuciones, sermones y otras obras de la misma naturaleza; las obras dramáticas o dramático-musicales; las obras coreográficas y las pantomimas; las composiciones musicales con o sin letra; las obras cinematográficas, a las cuales se asimilan las obras expresadas por procedimiento análogo a la cinematografía; las obras de dibujo, pintura, arquitectura, escultura, grabado, litografía; las obras fotográficas a las cuales se asimilan las expresadas por procedimiento análogo a la fotografía; las obras de artes aplicadas; las ilustraciones, mapas, planos, croquis y obras plásticas relativos a la geografía, a la topografía, a la arquitectura o a las ciencias.»

Como en el caso del Convenio de París, para el Convenio de Berna se creó una Oficina Internacional encargada de llevar a cabo tareas administrativas. En 1893, esas dos pequeñas oficinas se unieron para formar lo que se denominarían Oficinas Internacionales Reunidas para la Protección de la Propiedad Intelectual, establecida en Berna (Suiza), y con siete funcionarios; esa Organización fue la precursora de la actual Organización Mundial de la Propiedad Intelectual. Hoy la OMPI es una entidad dinámica integrada por 184 Estados miembros, cuenta con 938 funcionarios procedentes de 95 países, y su misión y mandato están en constante evolución.

En 1898, las oficinas sólo se ocupaban de la administración de cuatro tratados internacionales. Su sucesora, la OMPI, administra hoy 24 tratados (tres de ellos con otras organizaciones internacionales, lo que nos da una idea de la relevancia de este sector del Derecho hoy en día).

La ley que hoy prologamos viene derivada de la necesidad de adecuar el ordenamiento jurídico español a la Directiva 93/58/CEE de 29 de octubre, y se trata de aprobar un texto legal en el que se refundan las disposiciones legales vigentes en materia de propiedad intelectual «regularizando, aclarando y armonizando los textos que hubieren de ser refundidos». La importancia de esta norma proviene de que a su vez deroga seis textos legales y unifica en un único texto lo que antes era una regulación muy dispersa.

Sin más, no queda más que nuevamente agradecer a este grupo de profesores de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, en concreto a los encargados de esta traducción Dña. Itziar ALKORTA IDIAKEZ y D. Mikel KARRERA EGIALDE su esfuerzo en la traducción de esta norma.

Idoia MENDIA CUEVA
Consejera de Justicia y Administración Pública

hori. Bernako Nazioarteko Tratatua hedadura handiko nazioarteko hitzarmenda, eta haren helburua, berriz, herrialde jakin bateko nazionalitatea dutenek beren sorkuntza intelektualak beste herrialde batzuetan babestu ahal izatea, jabetza intelektualeko eskubideen bitartez, hala nola:

«Literatura, zientzia eta artearen arloko ekoizpen guztiak, edozein ere dela adierazpen modua, hala nola liburuak, liburuxkak eta beste idatzi batzuk; hitzaldiak, mintzaldiak, sermoiak eta izaera bereko beste obra batzuk; antzerkiak edo antzerki musikalak; koreografia-lanak eta pantomimak; musika-konposizioak, letradunak edo letrarik gabekoak; zinematografiako lanak eta zinematografiaren antzeko prozeduraz sortutako obrak; marrazkiak, marrogaok, arkitekturako lanak, eskulturak, grabatuak, litografiak, argazkiak eta argazkilartzaren antzeko prozeduraz sortutako argazkiak; arte aplikatuetako obrak; ilustrazioak, mapak, planoak, krokisak eta geografia, topografia, arkitektura edo zientziei buruzko obra plastikoak.»

Parisko Hitzarmenaren kasuan bezalaxe, Bernako Hitzarmenerako ere Nazioarteko Bulego bat sortu zen administrazio-lanak egiteko. 1893an, bi bulego txiki horiek elkartu, eta Jabetza Intelektualaren Babeserako Nazioarteko Bulego Elkartuak delakoa sortu zen, Bernan (Suitza) kokatua eta zazpi funtzionario zituela. Erakunde hori izan zen gaur egungo Jabetza Intelektualaren Mundu Era-kundearen aitzindaria. Gaur egun, 184 estatuk osatutako erakunde dinamiko bat da JIMEa; 95 herrialdetako 938 funtzionario ditu eta haren eginkizuna eta mandatua etengabeko bilakaera-prozesuan daude.

1898. urtean, bulegoak nazioarteko lau hitzarmenen administrazioaz baino ez ziren arduratzentz. Haren ondorengoak, JIMEak, 24 hitzarmen administratzen ditu (horietatik hiru nazioarteko beste erakunde batzuekin batera; horrek agerian uzten du Zuzenbidearen sektore honek gaur egun duen garrantzia).

Gaur hitzaurrea egiten diogun lege hau Espainiako antolamendu juridikoa 1993ko urriaren 29ko 93/58 Zuzentaraura egokitut beharretik eratorria da, eta asmoa, berriz, jabetza intelektualari buruz indarrean dauden xedapenak bateratzen dituen lege-testu bat onartzea da, «bateratu beharreko testuak bateratuz, argituz eta harmonizatzu». Araudi honek, gainera, sei lege-testu derogatzen ditu eta testu bakar batean biltzen lehen oso sakabanatuta zegoen araudia; horra hor beronen garrantzia.

Besterik gabe, arau hau itzultzeko egindako ahaleginarengatik eskerrak eman nahi dizkiot, berriro ere, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle-talde horri, batik bat itzulpen honen arduradun Itziar ALKORTA IDIAKEZ andreatsi eta Mikel KARRERA EGIALDE jaunari.

Idoia MENDIA CUEVA
Justizia eta Herri Administrazio sailburua

Atarikoa

Gizakiak kanporatzen dituen hausnarketak, gogoetak eta burutazioak euskarri batean jar daitezkeen heinean, zabaldu eta errepika daitezke. Gaur egun, teknologiak eman dituen aurrerapausoen ondorioz, obrak sortzeko, ekoizteko eta ustiatzeko aukerak asko ugaldu dira eta obra horien gaineko eskubideak —jabetza intelektualak— errealtitate ekonomiko eta ustiatzeko modu berrietara egokitzen beharra izan du. Obraren gaineko ahalmenak obra sortu duen pertsonari errekonozitzen zaizkio eta, legez, nolabaiteko monopolioa errekonozitu ere. Hain zuzen, Espainiako Konstituzioaren arabera, aitortzen eta babesten dira, besteak beste, literatura, artea, zientzia eta teknika ekoiztea eta sortzea. Bestalde, botere publikoek kultura edonoren irispidean egotea sustatu eta zainduko dute, guztiak baitute hartarako eskubidea; zehazki, zientzia eta ikerketa zientifiko nahiz teknikoa sustatuko dute, interes orokorraren onerako.

Abiapuntu gisa, obra sortu duen egileari ondare-izaerako eskubideak esleitzen zaizkio Kode Zibilean jabetzari buruz jasotako arauen arabera: gozatzeko eta xedatzeko eskubideak izango ditu jabeak, ahalmen horiek legeetan ezarritako mugen zedarrituko baditzute ere. Beraz, literaturako obra edo lan zientifiko nahiz artistikoa sortu duenak, lan hori ustiatzeko edo xedatzeko eskubidea izango du berak nahi bezala. Hori arautzera dator Jabetza Intelektualari buruzko Legea, zeinak zehaztuko baitu eskubide hori nori dagokion, nola baliatu behar den eta zenbat irauen behar duen. Dena den, eskubidea izaeraz ondareko elementuez osatua egoteaz gain, obrak egilearen nortasuna adierazi eta jasotzen duen heinean, izaeraz egileari berari bakarrik esleitutako ahalmenez ere osatua dago jabetza intelektualeko eskubidea. Horregatik, gauza gorpuzdun hutsei dagokien trataera ez baina, beste erregimen berezi bat eman behar zaio obrari eta bere gaineko egilearen ahalmenari. Hartara, obrak egilearen barne-gogoak aseztzeaz aparte, jendeari zabaltzeko helburua izan eta eskubidez bi ikuspegi horiek babesten ditu legeak.

EHUko Zuzenbide Fakultatearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmenari jarraiki, hemen aurkezten den itzulpen honen helburua, hain justu, trataera berezi hori biltzen duen testu nagusia euskaraz ematea da, bereziki ja-betza intelektualaren alorrean teknika juridikoak sortutako tresna nagusienei buruzko ideiak, esapideak eta terminoak modu zorrotzean nola adierazi erakusteko, modu eroso eta ulergarrian noski. Asmoa lehen urrats bat bailitzan hartu behar da, erabat aldatzten eta moldatzten doan alorra baita zuzenbidea.

Itzulpen horretan Irene ALDASORO eta Patxi PETRIRENA itzultzailak izan dira protagonista nagusi. *Legeak-Leyes* bilduma honetan baliatzen dugun metodologiarri men eginez, itzultzaila profesionalek egin dute lehenik itzulpena, eta ondoren, Zuzenbide Zibilean adituek, Mikel KARRERAK eta Itziar ALKORTAK orraztu dute itzulpen hori edukiei eta terminologiari erreparatuz. Egin-dako oharrak banan-banan aztertu ditugu guztiion artean, eta kasu bakotzean aukerarik egokiena egiten saiatu gara. Itzulpen honetan kontuan hartu ditugu *Legeak-Leyes* bildumaren gainerako testuetan hartutako erabakiak eta irizpideak.

Urtebeteko lan honen emaitza eskuetan du irakurleak. Orain, beraz, erabil-tzaileei dagokie obra honen fruituak jaso eta epaitzea.

Mikel KARRERA EGIALDE
EHUko Zuzenbide Zibileko irakaslea

JABETZA INTELEKTUALARI
BURUZKO LEGEAREN
TESTU BATEGINA

TEXTO REFUNDIDO DE
LA LEY DE PROPIEDAD
INTELECTUAL

LIBRO I
DE LOS DERECHOS DE AUTOR

TÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Hecho generador

La propiedad intelectual de una obra literaria, artística o científica corresponde al autor por el solo hecho de su creación.

Artículo 2. Contenido

La propiedad intelectual está integrada por derechos de carácter personal y patrimonial, que atribuyen al autor la plena disposición y el derecho exclusivo a la explotación de la obra, sin más limitaciones que las establecidas en la Ley.

Artículo 3. Características

Los derechos de autor son independientes, compatibles y acumulables con:

1. La propiedad y otros derechos que tengan por objeto la cosa material a la que está incorporada la creación intelectual.
2. Los derechos de propiedad industrial que puedan existir sobre la obra.
3. Los otros derechos de propiedad intelectual reconocidos en el Libro II de la presente Ley.

Artículo 4. Divulgación y publicación

A efectos de lo dispuesto en la presente Ley, se entiende por divulgación de una obra toda expresión de la misma que, con el consentimiento del autor, la haga accesible por primera vez al público en cualquier forma; y por publicación, la divulgación que se realice mediante la puesta a disposición del público de un número de ejemplares de la obra que satisfaga razonablemente sus necesidades estimadas de acuerdo con la naturaleza y finalidad de la misma.

I. LIBURUA

EGILE ESKUBIDEAK

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Egitate sortzailea

Obra literario, artistiko edo zientifiko baten jabetza intelektuala egileari dagocio, hura sortze hutsagatik.

2. artikulua. Edukia

Jabetza intelektuala izaera pertsonaleko eta ondare-izaerako eskubidez osatuta dago; eskubide horiek obra xedatzeko esku osoa eta hura ustiatzeko eskubide esklusiboa ematen diote egileari, legean ezarritakoak beste mugapenik gabe.

3. artikulua. Ezaugarriak

Egile-eskubideak independenteak, bateragarriak eta metagarriak dira hauekiko:

1. Sortze-lan intelektuala txertaturik doan gauza materialaren gaineko jabetza eta beste eskubide batzuk.
2. Obraren gaineko jabetza industrialeko eskubideak, halakorik bada.
3. Lege honen II. liburuan aitortzen diren jabetza intelektualeko beste eskubideak.

4. artikulua. Jendarteratzea eta argitaratzea

Lege honetan xedaturikoari dagokionez, obra bat jendarteratzea jotzen da: hura zeinahi formatan adieraztea, publikoak egilearen adostasunez hartara lehen aldiz irispidea izateko moduan; eta argitaratzea, berriz: publikoaren beharrak —obraren izaera eta helburuen arabera balioetsiak— modu arrazoizkoan aseko dituen ale kopuru bat haren eskura jarriz obra jendarteratzea.

TÍTULO II

SUJETO, OBJETO Y CONTENIDO

CAPÍTULO I

Sujetos

Artículo 5. Autores y otros beneficiarios

1. Se considera autor a la persona natural que crea alguna obra literaria, artística o científica.
2. No obstante de la protección que esta Ley concede al autor se podrán beneficiar personas jurídicas en los casos expresamente previstos en ella.

Artículo 6. Presunción de autoría, obras anónimas o seudónimas

1. Se presumirá autor, salvo prueba en contrario, a quien aparezca como tal en la obra, mediante su nombre, firma o signo que lo identifique
2. Cuando la obra se divulgue en forma anónima o bajo seudónimo o signo, el ejercicio de los derechos de propiedad intelectual corresponderá a la persona natural o jurídica que la saque a la luz con el consentimiento del autor, mientras éste no revele su identidad.

Artículo 7. Obra en colaboración

1. Los derechos sobre una obra que sea resultado unitario de la colaboración de varios autores corresponden a todos ellos.
2. Para divulgar y modificar la obra se requiere el consentimiento de todos los coautores. En defecto de acuerdo, el Juez resolverá.

Una vez divulgada la obra, ningún coautor puede rehusar injustificadamente su consentimiento para su explotación en la forma en que se divulgó.

3. A reserva de lo pactado entre los coautores de la obra en colaboración, éstos podrán explotar separadamente sus aportaciones, salvo que causen perjuicio a la explotación común.

4. Los derechos de propiedad intelectual sobre una obra en colaboración corresponden a todos los autores en la proporción que ellos determinen. En

II. TITULUA
SUBJEKTUA, OBJEKTUA ETA EDUKIA

I. KAPITULUA

Subjektuak

5. artikulua. Egileak eta beste onuradun batzuk

1. Egile jotzen da: obra literario, artistiko edo zientifiko bat sortzen duen pertsona naturala.
2. Hala ere, lege honek egileari ematen dion babesaren onura pertsona juridikoek izan dezakete lege honetan espresuki aurreikusitako kasuetan.

6. artikulua. Egileta-presuntzioa; obra izengabeak edo izenordedunak

1. Kontrakorik frogatu ezean, presuntzio egingo da egile dela: bere izenaren, sinaduraren edo identifikatzen duen zeinu baten bidez obran egiletzat ageri dena.
2. Obra izenik gabe edo izenorde edo zeinu batez jendarteratzen denean, egilearen adostasunez hura argitara ematen duen pertsona natural edo juridikoa dagokio jabetza intelektualeko eskubideak baliatzea, egileak bere identitatea agertzen ez duen bitartean.

7. artikulua. Lankidetzan egindako obra

1. Egile bat baino gehiagoren lankidetzatik sorturiko obra bakarraren gainerako eskubideak egile horiei guztiei dagozkie.

2. Obra jendarteratzeko eta aldatzeko, egilekide guztien adostasuna behar da. Bat etorri ezean, epaileak ebatziko du.

Obra jendarteratu eta gero, ezein egilekidek ezin ukatuko du, justifikaziorik gabe, jendarteratu zen forman hura ustiatzeko adostasuna.

3. Betiere gordez lankidetzan egindako obraren egilekideek hitzarturikoa, egile bakoitzak bereiz ustiatu ahal izango du bere ekarpena, ustiapen erkideeari kalterik eragiten ez badio.

4. Lankidetzan egindako obra bati buruzko jabetza intelektualeko eskubideak egile guztiei dagozkie, berek ezartzen duten proportzioan. Lege honetan

lo no previsto en esta Ley, se aplicarán a estas obras las reglas establecidas en el Código Civil para la comunidad de bienes.

Artículo 8. Obra colectiva

Se considera obra colectiva la creada por la iniciativa y bajo la coordinación de una persona natural o jurídica que la edita y divulga bajo su nombre y está constituida por la reunión de aportaciones de diferentes autores cuya contribución personal se funde en una creación única y autónoma, para la cual haya sido concebida sin que sea posible atribuir separadamente a cualquiera de ellos un derecho sobre el conjunto de la obra realizada.

Salvo pacto en contrario, los derechos sobre la obra colectiva corresponderán a la persona que la edite y divulgue bajo su nombre.

Artículo 9. Obra compuesta e independiente

1. Se considerará obra compuesta la obra nueva que incorpore una obra preexistente sin la colaboración del autor de esta última, sin perjuicio de los derechos que a éste correspondan y de su necesaria autorización.
2. La obra que constituya creación autónoma se considerará independiente, aunque se publique conjuntamente con otras.

CAPÍTULO II

Objeto

Artículo 10. Obras y títulos originales

1. Son objeto de propiedad intelectual todas las creaciones originales literarias, artísticas o científicas expresadas por cualquier medio o soporte, tangible o intangible, actualmente conocido o que se invente en el futuro, comprendiéndose entre ellas:

- a) Los libros, folletos, impresos, epistolarios, escritos, discursos y alocuciones, conferencias, informes forenses, explicaciones de cátedra y cualesquiera otras obras de la misma naturaleza.
- b) Las composiciones musicales, con o sin letra

aurreikusten ez den harten, Kode Zibilean ondasun-erkidegoarentzat ezarritako erregelak aplikatuko zaizkie obra horiei.

8. artikulua. Obra kolektiboa

Obra kolektibotzat jotzen da: pertsona natural edo juridiko batek bere ekinenez eta koordinazio-lanez sortzen eta bere izenez editatu eta jendarteratzen duen sortze-lan bakar eta autonomoa, egile batek baino gehiagok hartarako egindako ekarpen pertsonalak batuz osatua, egileetariko ezeini obra osoaren gaineko eskubiderik berari bakarrik esleitzeko aukerarik gabe.

Kontrakorik hitzartu ezean, obra kolektiboa bere izenean editatu eta jendarteratzen duen pertsonari dagozkio haren gaineko eskubideak.

9. artikulua. Obra konposatua eta independentea

1. Obra konposatutzat joko da: aurretiazko obra bat haren egilearen lan-kidetzarik gabe bere barnean biltzen duen obra berri bat; horrek ez ditu eragotziko aurretiazko obraren egileari dagozkion eskubideak, ez eta haren baimena behar izatea.

2. Sortze-lan autonomoa dena obra independentetzat joko da, nahiz eta beste batzuekin batera argitaratu.

II. KAPITULUA

Objektua

10. artikulua. Jatorrizko obra eta izenburuak

1. Jabetza intelektualaren objektu dira: jatorrizko sortze-lan literario, artistiko edo zientifiko guztiak, gaur egun diren edo etorkizunean asmatzen diren edozein bitarteko edo euskarri ukigarri zein ukiezinez adieraziak. Besteak beste:

a) Liburuak, liburuxkak, inprimakiak, gutun-bildumak, idazkiak, diskurtso eta alokuzioak, hitzaldiak, auzitegi-txostenak, katedra-azalpenak eta izaera bereko beste zeinahi obra.

b) Musika-konposizioak, letradunak nahiz letragabek.

- c) Las obras dramáticas y dramático-musicales, las coreografías, las pantomimas y, en general, las obras teatrales.
 - d) Las obras cinematográficas y cualesquiera otras obras audiovisuales.
 - e) Las esculturas y las obras de pintura, dibujo, grabado, litografía y las historietas gráficas, tebeos o comics, así como sus ensayos o bocetos y las demás obras plásticas, sean o no aplicadas.
 - f) Los proyectos, planos, maquetas y diseños de obras arquitectónicas y de ingeniería.
 - g) Los gráficos, mapas y diseños relativos a la topografía, la geografía y, en general, a la ciencia.
 - h) Las obras fotográficas y las expresadas por procedimiento análogo a la fotografía.
 - i) Los programas de ordenador.
2. El título de una obra, cuando sea original, quedará protegido como parte de ella.

Artículo 11. Obras derivadas

Sin perjuicio de los derechos de autor sobre la obra original, también son objeto de propiedad intelectual:

- 1. Las traducciones y adaptaciones.
- 2. Las revisiones, actualizaciones y anotaciones.
- 3. Los compendios, resúmenes y extractos.
- 4. Los arreglos musicales.
- 5. Cualesquiera transformaciones de una obra literaria, artística o científica.

Artículo 12. Colecciones. Bases de datos

1. También son objeto de propiedad intelectual, en los términos del Libro I de la presente Ley, las colecciones de obras ajena, de datos o de otros elementos independientes como las antologías y las bases de datos que por la selección o disposición de sus contenidos constituyan creaciones intelectuales, sin perjuicio, en su caso, de los derechos que pudieran subsistir sobre dichos contenidos.

- c) Obra dramatikoak eta dramatiko-musikalak, koreografiak, pantomimak eta, oro har, antzerki-obrak.
 - d) Obra zinematografikoak eta ikus-entzunezko beste zeinahi obra.
 - e) Eskulturak, margolanak, marrazkiak, irarlanak, litografiak; istorio grafiakoak, haurren zein helduen komikiak, eta haien probasaio edo zirriborroak eta gainerako obra plastikoak, aplikatuak izan zein ez.
 - f) Arkitektura- eta ingeniaritza-obren proiektuak, planoak, maketak eta diseinuak.
 - g) Topografiari, geografiari eta, oro har, zientziari buruzko grafikoak, mapak eta diseinuak.
 - h) Obra fotografikoak eta fotografiaren antzeko prozeduraz adierazitakoak.
 - i) Ordenagailu-programak.
2. Obraren izenburua, jatorrizkoa denean, obraren parte gisa babesturik geratuko da.

11. artikulua. Obra eratorriak

Jatorrizko obraren gaineko egile-eskubideak eragotzi gabe, jabetza intelektualaren objektu dira, orobat:

1. Itzulpenak eta egokitzapenak.
2. Berrikuspenak, eguneratzeak eta oharpenak.
3. Laburpenak, zeinahi motatakoak.
4. Musika-moldaketak.
5. Obra literario, artistiko edo zientifiko baten zeinahi eraldaketa.

12. artikulua. Bildumak. Datu-baseak

1. Jabetza intelektualaren objektu dira, orobat, lege honen I. liburuaren arabera, inoren obren bildumak, datu-bildumak edo beste elementu independente batzuen bildumak, hala nola edukien aukera edo antolaketarengatik sortze-lan intelektual diren antologiak eta datu-baseak, hargatik eragotzi gabe edukion gaineko eskubideak, halakorik bada.

La protección reconocida en el presente artículo a estas colecciones se refiere únicamente a su estructura en cuanto forma de expresión de la selección o disposición de sus contenidos, no siendo extensiva a éstos.

2. A efectos de la presente Ley, y sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, se consideran bases de datos las colecciones de obras, de datos, o de otros elementos independientes dispuestos de manera sistemática o metódica y accesibles individualmente por medios electrónicos o de otra forma.

3. La protección reconocida a las bases de datos en virtud del presente artículo no se aplicará a los programas de ordenador utilizados en la fabricación o en el funcionamiento de bases de datos accesibles por medios electrónicos.

Artículo 13. Exclusiones

No son objeto de propiedad intelectual las disposiciones legales o reglamentarias y sus correspondientes proyectos, las resoluciones de los órganos judiciciales y los actos, acuerdos, deliberaciones y dictámenes de los organismos públicos, así como las traducciones oficiales de todos los textos anteriores.

CAPÍTULO III

Contenido

SECCIÓN I.^a

Derecho moral

Artículo 14. Contenido y características del derecho moral

Corresponden al autor los siguientes derechos irrenunciables e inalienables:

1. Decidir si su obra ha de ser divulgada y en qué forma.

2. Determinar si tal divulgación ha de hacerse con su nombre, bajo seudónimo o signo, o anónimamente.

3. Exigir el reconocimiento de su condición de autor de la obra.

4. Exigir el respeto a la integridad de la obra e impedir cualquier deformación, modificación, alteración o atentado contra ella que suponga perjuicio a sus legítimos intereses o menoscabo a su reputación.

Artikulu honetan bildumoi aitorturiko babesha haien egiturari dagokio soilik, edukien aukeraren edo antolaketaren adierazpen den aldetik, eta ez da edukietara zabalduko.

2. Lege honi dagokionez, eta hargatik eragotzi gabe aurreko zenbakian xedaturikoa, datu-basetzat jotzen dira: modu sistematiko edo metodikoan antolaturik dauden eta bide elektronikoz edo beste modu batera banaka irisgarriak diren obren, datuen, edo beste elementu independente batzuen bildumak.

3. Artikulu honetan datu-baseei aitorturiko babesha ez zaie aplikatuko bide elektronikoz eskura daitezkeen datu-baseak fabrikatzeko edo haiei funtzionalizazteko erabiltzen diren ordenagailu-programeai.

13. artikulua. Bazterketak

Ez dira jabetza intelektualaren objektu: lege- edo erregelamendu-xedapenak eta haien proiektuak; jurisdikzio-organoen ebazenak eta organismo publikoen egintza, erabaki, deliberatze-saio eta irizpenak, ez eta testu horien guztien itzulpen ofizialak ere.

III. KAPITULUA

Edukia

I. ATALA

Eskubide morala

14. artikulua. Eskubide moralaren edukia eta ezaugarriak

Egileari dagozkio eskubide uko egin ezin eta besterenezin hauek:

1. Bere obra jendarteratu behar den eta nola jendarteratu behar den erabakitzea.

2. Jendarteratze hori bere izenez, izenorde edo zeinuz, edota izenik gabe egin behar den zehaztea.

3. Obraren egileta aitor dakiola galdatzea.

4. Obraren osotasuna gorde dadila galdatzea eta ez uztea ezein desitxuratze, aldaketa, bestelakotze edo eraso egiten obrari bere interes legitimoen kaltetan edo bere izen ona gutxiarazteko moduan.

5. Modificar la obra respetando los derechos adquiridos por terceros y las exigencias de protección de bienes de interés cultural.

6. Retirar la obra del comercio, por cambio de sus convicciones intelectuales o morales, previa indemnización de daños y perjuicios a los titulares de derechos de explotación.

Si, posteriormente, el autor decide reemprender la explotación de su obra deberá ofrecer preferentemente los correspondientes derechos al anterior titular de los mismos y en condiciones razonablemente similares a las originarias.

7. Acceder al ejemplar único o raro de la obra, cuando se halle en poder de otro, a fin de ejercitar el derecho de divulgación o cualquier otro que le corresponda.

Este derecho no permitirá exigir el desplazamiento de la obra y el acceso a la misma se llevará a efecto en el lugar y forma que ocasionen menos incomodidades al poseedor, al que se indemnizará, en su caso, por los daños y perjuicios que se le irroguen.

Artículo 15. Supuestos de legitimación «mortis causa»

1. Al fallecimiento del autor, el ejercicio de los derechos mencionados en los apartados 3. y 4. del artículo anterior corresponde, sin límite de tiempo, a la persona natural o jurídica a la que el autor se lo haya confiado expresamente por disposición de última voluntad. En su defecto el ejercicio de estos derechos corresponderá a los herederos.

2. Las mismas personas señaladas en el número anterior y en el mismo orden que en él se indica, podrán ejercer el derecho previsto en el apartado 1. del artículo 14, en relación con la obra no divulgada en vida de su autor y durante un plazo de setenta años desde su muerte o declaración de fallecimiento, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 40.

Artículo 16. Sustitución en la legitimación «mortis causa»

Siempre que no existan las personas mencionadas en el artículo anterior, o se ignore su paradero, el Estado, las Comunidades Autónomas, las Corporaciones Locales y las instituciones públicas de carácter cultural estarán legitimados para ejercer los derechos previstos en el mismo.

5. Obra aldatzea, hirugarren batzuek eskuratutako eskubideak eta interes kulturaleko ondasunen babes-betekizunak gordez.

6. Obra merkatutik erretiratzea, bere iritzi intelektual nahiz moralak aldatu izanaren ondorioz, aurrez kalte-galerak ordaindurik ustiapen-eskubideen titulurrei.

Egileak, geroago, bere obra berriro ustiatzen hastea erabakitzan badu, obraren ustiapen-eskubideak aurreko titularrari eskaini beharko dizkio lehenik eta, arrazoizkoa den heinean, hasierako baldintza bertsuetan.

7. Irispidea izatea obraren ale bakar edo bakanera, hura beste norbaiten esku dagoenean, jendarteratze-eskubidea edo dagokion beste zeinahi eskubide baliatu ahal izateko.

Eskubide hori izateak ez du zilegituko obra lekualda dadila galdatzea, eta edukitzailari deserosotasun gutxien sortuko dion leku eta moduan emango zaio egileari obrarako irispidea; hala badagokio, eragindako kalte-galerak ordainduko zaizkio edukitzailari.

15. artikulua. «*Mortis causa*» legitimazio-kasuak

1. Egilea hiltzean, hark bere azken borondateko xedapenean espresuki hartarako eskubidea eman dion pertsona natural edo juridikoari dagokio aurreko artikuluaren 3. eta 4. zenbakietan aipaturiko eskubideak baliatzea, epe-mugarik gabe. Halakorik ezean, egilearen jaraunsleei egokituko zaie eskubideok baliatzea.

2. Aurreko zenbakian adierazitako pertsona berek, eta hartan adierazitako ordena berean, 14. artikuluaren 1. zenbakian aurreikusitako eskubidea baliatu ahal izango dute, egilearen bizaldian jendarteratu gabeko obrari dagokionez, egilearen heriotzatik edo heriotza-deklaraziotik hirurogeita hamar urteren epean, hargatik eragotzi gabe 40. artikuluan ezarritakoa.

16. artikulua. «*Mortis causa*» legitimazioa dutenen ordezpena

Aurreko artikuluan aipaturiko pertsonarik ez denean, edo non diren ezagutzen ez denean, hauek egongo dira legitimaturik artikulu horretan aurreikusitako eskubideak baliatzeko: Estatua, autonomia-erkidegoak, toki-korporazioak eta izaera kulturaleko erakunde publikoak.

SECCIÓN 2.^a

Derechos de explotación

Artículo 17. Derecho exclusivo de explotación y sus modalidades

Corresponde al autor el ejercicio exclusivo de los derechos de explotación de su obra en cualquier forma y, en especial, los derechos de reproducción, distribución, comunicación pública y transformación, que no podrán ser realizadas sin su autorización, salvo en los casos previstos en la presente Ley.

Artículo 18. Reproducción

Se entiende por reproducción la fijación directa o indirecta, provisional o permanente, por cualquier medio y en cualquier forma, de toda la obra o de parte de ella, que permita su comunicación o la obtención de copias.

Artículo 19. Distribución

1. Se entiende por distribución la puesta a disposición del público del original o de las copias de la obra, en un soporte tangible, mediante su venta, alquiler, préstamo o de cualquier otra forma.

2. Cuando la distribución se efectúe mediante venta u otro título de transmisión de la propiedad, en el ámbito de la Unión Europea, por el propio titular del derecho o con su consentimiento, este derecho se agotará con la primera, si bien sólo para las ventas y transmisiones de propiedad sucesivas que se realicen en dicho ámbito territorial.

3. Se entiende por alquiler la puesta a disposición de los originales y copias de una obra para su uso por tiempo limitado y con un beneficio económico o comercial directo o indirecto.

Quedan excluidas del concepto de alquiler la puesta a disposición con fines de exposición, de comunicación pública a partir de fonogramas o de grabaciones audiovisuales, incluso de fragmentos de unos y otras, y la que se realice para consulta «in situ».

4. Se entiende por préstamo la puesta a disposición de los originales y copias de una obra para su uso por tiempo limitado sin beneficio económico o comercial directo ni indirecto, siempre que dicho préstamo se lleve a cabo a través de establecimientos accesibles al público.

2. ATALA

Ustiapen-eskubideak

17. artikulua. Ustiapen-eskubide esklusiboa eta haren aldaerak

Egileari bakarrik dagokio bere obra zeinahi formatan ustiatzeko eskubideak baliatzea eta, bereziki, erreproduzitzeko, banatzeko, publikoari komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak baliatzea; horiek guztiak ezin egingo dira egilearen baimenik gabe, lege honetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

18. artikulua. Erreprodukzioa

Erreprodukziotzat jotzen da: obra osoa edo haren parte bat finkatza, zuzean edo zeharka, behin-behinekoz edo behin betiko, zeinahi bidez eta zeinahi formatan, obra komunikatu edo kopiak egin ahal izateko moduan.

19. artikulua. Banaketa

1. Banaketatzat jotzen da: obraren jatorrizkoa edo kopiak publikoaren escura jartza, euskarri ukigarri batean, salmenta, alokairu nahiz mailegu bidez edo beste zeinahi formatan.

2. Banaketa, Europar Batasunaren eremuan, salmenta bidez edo jabetza eskualdatzeko beste titulu baten bidez eskubidearen titularrak berak egina deean, edo haren baimenez, lehenengoarekin agortuko da eskubide hori, baina lurralde-eremu horretan egiten diren hurrengo salmenta eta jabetza-eskualdatzееi dagokienez bakarrik.

3. Alokairutzat jotzen da: obra baten jatorrizkoak edo kopiak epe jakin batean erabiltzeko eskuragarri jartza, zuzeneko edo zeharkako etekin ekonomiko edo komertzial baten truke.

Alokairu kontzeptutik kanpo geratzen da obra eskuragarri jartza, helburuak hauek direnean: batetik, fonogrametan nahiz ikus-entzunezko grabazioetan —edo are haien zatietan— oinarritutik obra erakusgai jarri edo publikoari komunikatzea; eta, bestetik, hura «*in situ*» kontsultatzea.

4. Mailegutzat jotzen da: obra baten jatorrizkoak eta kopiak epe jakin batean erabiltzeko eskuragarri jartza, zuzeneko zein zeharkako etekin ekonomiko edo komertzialik gabe, betiere publikoak irispidea duen establezimenduen bidez egiten bada mailegu hori.

Se entenderá que no existe beneficio económico o comercial directo ni indirecto cuando el préstamo efectuado por un establecimiento accesible al público dé lugar al pago de una cantidad que no exceda de lo necesario para cubrir los gastos de funcionamiento. Esta cantidad no podrá incluir total o parcialmente el importe del derecho de remuneración que deba satisfacerse a los titulares de derechos de propiedad intelectual conforme a lo dispuesto por el apartado segundo del artículo 37.

5. Lo dispuesto en este artículo en cuanto al alquiler y al préstamo no se aplicará a los edificios ni a las obras de artes aplicadas.

Artículo 20. Comunicación pública

1. Se entenderá por comunicación pública todo acto por el cual una pluralidad de personas pueda tener acceso a la obra sin previa distribución de ejemplares a cada una de ellas.

No se considerará pública la comunicación cuando se celebre dentro de un ámbito estrictamente doméstico que no esté integrado o conectado a una red de difusión de cualquier tipo.

2. Especialmente, son actos de comunicación pública:

a) Las representaciones escénicas, recitaciones, disertaciones y ejecuciones públicas de las obras dramáticas, dramático-musicales, literarias y musicales mediante cualquier medio o procedimiento.

b) La proyección o exhibición pública de las obras cinematográficas y de las demás audiovisuales.

c) La emisión de cualesquiera obras por radiodifusión o por cualquier otro medio que sirva para la difusión inalámbrica de signos, sonidos o imágenes. El concepto de emisión comprende la producción de señales portadoras de programas hacia un satélite, cuando la recepción de las mismas por el público no es posible sino a través de entidad distinta de la de origen.

d) La radiodifusión o comunicación al público vía satélite de cualesquiera obras, es decir, el acto de introducir, bajo el control y la responsabilidad de la entidad radiodifusora, las señales portadoras de programas, destinadas a la recepción por el público en una cadena ininterrumpida de comunicación que vaya al satélite y desde éste a la tierra. Los procesos técnicos normales relativos a las señales portadoras de programas no se consideran interrupciones de la cadena de comunicación.

Zuzeneko edo zeharkako etekin ekonomiko edo komertzialik ez dagoela ulertuko da publikoak irispidea duen establezimendu baten bidez egindako maileguarenengatik ordaindu beharreko diru-kopurua funtzionamendu-gastuak estaltzeko baino handiagoa ez denean. Diru-kopuru horretan ezin sartuko da, osorik edo partez, 37. artikuluaren bigarren paragrafoan xedaturikoaren arabera jabetza intelektualeko eskubideen titularrei ordaindu beharreko ordainsari-eskubidearen zenbatekoa.

5. Artikulu honetan alokairuari eta maileguari buruz xedaturikoa ez zaie aplikatuko ez eraikinei, ez arte aplikatuetako obrei.

20. artikulua. Komunikazio publikoa

1. Komunikazio publikotzat joko da: pertsona bakoitzari aurrez obraren alerik banatu gabe pertsona askori obrara irispide emango dion egintza oro.

Ez da komunikazio publikotzat joko hedapen-sareren batean sarturik edo hari konektaturik ez dagoen eremu guztiz etxekoan egiten den komunikazioa.

2. Bereziki, komunikazio-egintza publikoak dira:

a) Obra dramatiko, dramatiko-musikal, literario eta musicalen taularatzea, errezitazio, disertazio eta exekuzio publikoak, zeinahi bitarteko edo prozedura baliaturik eginak.

b) Obra zinematografiko eta gainerako ikus-entzunezko obren proiekzio edo erakusketa publikoa.

c) Zeinahi obra emititzea irrati-hedapenez edo zeinuak, soinuak nahiz irudiak haririk gabe hedatzeko beste zeinahi bidez. Emititze kontzeptuan sartzen da satelite batera seinale programa-garraiatzaileak ekoiztea, publikoak seinaleok ezin jaso dituenean jatorrikoa ez den beste entitate baten bidez ez bada.

